

"ARESTI TALDEA"

Bilbon, izenarekin, euskal kultur elkarte berri bat sortu da, eta, dirudie-nez, oso dinamikoa. Hainbat ekintza egin ditu egun hauetan, eta garrantzi-tsuen Gernikako pilotatokian otsaila-ren 29an eskainiriko saioa izan da. Hiru mila lagun ziren 8 bertsolari eta Oskorri kantari taldeari entzuteko. Bertsolarien artean Xabier Amuriza apezak, Zamora-ko gartzelatik oraintsu irtena. Jaialdian jendearen aurrera agertu zenean, izu-garritzko txalo zartadez agurtua izan zen.

GABIKA ETA NABERAN ETXEAN

Gabika eta Naberan apezak Zamora-ko gartzelatik atera dituzte. Lekeition, Gabikaren zain etxeak eta adiskide batzu zeuden gauean. Eta heldu zenean, oso alaikiro, elkar musuka eta agurka zeudenean, haien poza nigar bihurtu zen, norbaitzuk emandako kol-peen eraginez. Gabikak etxean lo egin zuen, baina haren familiako batzu espetxean eta ospitalean.